

FRANTZIAKO ESKUALDEETAKO BOZAK

# Hexagonoan, Akitanian eta Iparraldean PS lehen indarra

Abstentzioa nagusitu da Frantziako lehen itzuliko eskualdeetako hauteskundeetan. Alderdien artean PS izan da lehen indarra estatuan. Akitanian eta Iparraldean ere Alain Rousset-en hautagaitza izan da garaile. Iparraldean EAJ-PNBk boz kopuru polita bildu du, aldiz, EH Baik ez horrenbeste. Baterak antolatutako herri galdeketak oihartzuna ukan du.

MIKEL ASURMENDI

ABSTENTZIOA izan da (hautesleen %53,50) Frantziako eskualdeetako bozetan nagusi. Gainerakoan, PS izan da (bozen %29,50) alderdi garailea Nicolas Sarkozy-ren UMPren (%27) aldean. Europe Ecologiek (%12,5) emaitza moderatuak lortu ditu. Jean-Marie Le Pen-en Front National-ek (%12) igoera nabarmena izan du UMPren kaltetan. Alderdi sozialista (PS) da bigarren itzulirako (martxoaren 21ean) faboritua. PSk, Europe Ecologiek eta komunistek osatutako fronteak (FGk %6,20 lortu ditu) aurre egin behar die UMPren inguruan bilduko diren zentro-eskuineko indarrei. Oraindik ere Kontseilu Nagusietako 26 presidentek izendatzeko daude.

## Akitaniako Kontseilua

Alain Rousset-ek presidente kargua berrituko du ia-ia ziur Akitanian. PSk bozen %37,63 lortu du. UMPko Xavier Darcos izan da galtzaile. Lan ministroak bozen %22,05 besterik ez du erdietsi. MoDem-eko Jean Lassalleren karismak bere alderdia salbatu du. Bozen %10,43 bildu du. Europe Ecologieko Monique De Marco izan da beste galtzaile bat (%9,75). Izan ere, bigarren itzulian lehiatzeko behar diren bozen %10 ez baitu erdietsi. Bigarren itzulirako negoziatioak oso estuak izanen dira. Xavier Darcos hautagaiak PS, Europe Ecologie eta FGren arteko diferentziak gaindiezinak direla dio. Aldiz, UMPren eta MoDem-en arteko akordioa gauzatzea aski erraz ikusten du. Akitaniako hala

nola Estatuko gainontzeko 25 eskualdeetan alderdien arteko negoziatio mahaia zabalik daude. Bozkatzera joan ez diren hautesleen %50,44 dute jo muga alderdiek.

## Ipar Euskal Herrian

Ipar Euskal Herriko hautesleen erdia baino gehiagok ez du boza eman bozen lehen itzulian. PSko Alain Rousset-ek bozen %32,71 erdietsi du. LGV azpiegituran (Abiadura Handiko Trenbidea) daukan jarrerak ez du PSren emaitzetan eraginik izan, Monique De Marco-ren kaltetan betiere. UMPk porrot historikoa jaso du Iparral-

dean, bozen %19,81 lortu du. MoDem hobeto atera da bozen %17,66rekin. Jean Lassallen eragina agerikoa da ere hemen. EAJ-PNBko Jean Tellecheak eman du ustekabe esanguratsua. 6.000 boz erdietsi ditu. EH Baik, berriz, protestako 4.000 boz baliogabe erdietsi du. Irakurketa franko egin daitezke emaitza hauen inguruan. Nork bere interesekoak, bistan da. Deigarria da halaber Olivier Besancenot-en Alderdi Antikapitalista Berriak (NPA) Iparraldean nahiz Estatuan hautesleen artean izan duen interes eskasa.

## Batera: herri galdeketa

Batera plataformak 28.233 jende hurbildu du herri galdeketa boz ematera. Herritar horien %78k instituzio bereziaren alde egin du. %19k berriz aurka. %3k zuri bozkatu du. Azpimarragarria da Baionan hautesleen %10k bozkatu izana.

Bi irakurketa finitzeko. Bat: Batera plataformaren ekimenaren inguruan mobilizatu diren boz emaleak eta alderdi abertzaleen inguruan mobilizatu direnak, kopuruz eta interesez ez dira berdinak.

Bi: Estatuko bozetan inoizko abstentzioa izan da. Alta, hauteskunde hauek ez dira, esaterako, Europako Parlamenturako hauteskundeak. Hots, teoriaz herritarren-gandik hurbilen dauden instituzio-etarako bozak dira. Zerk egiten du huts? Hutsak huts, hautesleen mobilizazioan hedabideen eragina itzela da. Bigarren itzuliko partehartzeak erakutsiko du hedabideen eraginaren heina. ■



Hautesleen erdia baino gehiago ez du bozkatzera joan.